



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko ekainaren 15a

68. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztua (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioarekin lotutakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Lekunberri-Albiasu saihesbide berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoetan erlijio-ikurrak egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako errepideetan gatza botatzearen ondorio kaltegarriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntza Hobetzeko Planaren esparruan azterlan bat egite aldera kanpoko enpresa bat kontratatu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Irudi bidezko Médicis diagnosi zentroarekiko hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz aurkeztuko duen Klimaren aldeko Ekintza Planaren aurre-rapena. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Erronkari jatorrizko deituran kanpoko ardi esnea erabil ez dadin Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, erakunde publikoetan erlijio-ikurrak egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, 2009an onetsitako enplegu-erregulazioko espedientei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta eskatzen du presaz eta irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Beste behin aurkeztu da Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Proposamen hori berriki izapidetu denez (2010eko apirilaren 28ko NPAO), Parlamentuak badaki zein den Gobernuak lege-ekimen horri buruz duen iritzia. Bestalde, bilkuraldia amaitzeaz da, eta, hala, justifikatuta dago izapideak presaz egitea. Aurrekoak kontuan hartuta, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 107., 109., 147. eta 157. artikuluetan xedatuarekin bat, Eleduen Batzarrari entzun ondoren, ERABAKI DA:

1. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamena presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamena Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoa bete dezan, eta Gobernuari ohartaraztea irizpidea adierazteko epea hilaren 18an amaituko zaiola, 12:00etan.

4. Zuzenketak aurkezteko epea irekitzea, foru lege proposamena eztabaidatuko den Osoko Bilkuraren bezperako 12:00ak arte. Zuzenketak Biltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Datuak esanguratsuak dira, eta zeharo argigarririk. 2007an, zazpiehun emakume nafarrek borondatez eten zuten beren haurdunaldia, eta guzti-guztiek gure erkidegotik kanpo egin behar izan zuten hori. Nafarroan gertatzen den egoera Espainiako Estatuaren osotasunarekin alderatuta atipikoa da, Nafarroako Gobernuak bere moralala inposatzen baitu emakumeek legez daukaten eskubidearen gainetik, eta emakumeak behartzen ditu beste autonomia erkidego batzuetara joatera, hala nola Euskadira, Madrilera edo Aragoira, zertarako eta Nafarroan ere legez ziurtatuta dagoen osasun-prestazio bat izateko.

Paradoxa da ezen, inposaturiko zama moralala gorabehera, Foru Administrazioa dela zerbitzu hori ordaintzen diona hala eskatzen duenari. Alegia, ordaintzen duenaren helburua da Nafarroan indarreko legediaren babesean egin beharko litzatekeena beste erkidego batzuetan egiteko. Eta hori ageriko hipokrisia da.

Egoera horren aurrean, eta emakumeek Espainiako gainerako emakumeen baldintza beretan duten eskubidea defendatzeko, beharrezkoa da legedi argi eta zehatza taxutzea, interpretazioak egiten ibiltzea galaraziko duena eta osasun-prestazio horiek gure erkidegoan egiazki ematen direla ziurtatuko duena, moralarekin loturiko inolako zamak eragotz ez dezan legearen egiazko bete-tzea.

Azken batean, kontua da, adibide argigarri batzuk ipintzearen, Corteseko herritar diren emakumeek mugakide den Mallén herrikoen eskubide bera izatea, edo San Adriango herritar diren emakumeek Calahorrakoen eskubide bera izatea, edo Altsasuko herritar direnek Aguraingoen eskubide bera izatea, edo Berakoek Iruñekoena.

Artikulu bakarra.

Aldatu egin da azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 5.14 artikulua. Honela geldituko da:

“Gaixotasun fisiko nahiz psikiko guztien osasun-estaldura orokorra edukitzeko eskubidea, legeek ezarritakoaren barruan. Emakumezkoak diren herritarrek, eskubideen subjektu gisa, aitortuak dituzte, Nafarroako osasun publikoaren barruan eta itunpeko osasunaren barruan, besteak beste, haurdunaldiaren borondatezko etetearen osasun-prestazioa, betiere legez aurreikusitako baldintzetan.

Osasun-arloko agintariak bermatuko dute zerbitzu hori ematea zerbitzu-sare publikoan eta Nafarroaren osasun-eskualdearen barrenean, berekiak nahiz kanpoan kontratatuak diren lantalde mediko eta osasuneko bidez, horrela osasun-prestazio hori bermatzeko.

Foru Komunitateko Osasun Administrazioak prestazio osagarriak ezarri ahalko ditu, aurretik

programazio berekia eta aurrekontu-zuzkidura berezia izanda gauzatuko direnak, eta helburu gisa izanen dute arrisku bereziko faktoredun gizar-te-taldeak babestea, lan-osasuna bereziki kontuan hartuz”

Xedapen gehigarria.

Foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, abian jarriko dira foru lege hau erabat aplikatua izateko beharrezkoak diren bitarteko eta antolabide guztiak.

Xedapen indargabetzailea.

Foru lege honen aurka doazen lege- nahiz erregelamendu-xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira.

Azken xedapena.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den unean bertan.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioarekin lotutakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioarekin lotutakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 11ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioarekin lotutako zenbait gairi buruz (PES-316). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1.- 2008ari dagokionez:

– Nafarroako aurrekontu orokorretan fundazioari zuzenean esleitutako zenbatekoa: 1.300.000 €.

– Fundazioak kudeatutako zenbatekoak, esku hartu duen lanetako bakoitza xehakatuta:

– Arellanon museoa sortu eta aztarnategiari balioa ematea:	484.902,97 €
– Uxue, 5. fasea	572.604,27 €
– Artaxoako omenaldi-dorrearen indusketa lana	24.661,02 €
– Artaxoako San Saturnino eliza, 4. fasea	644.454,03 €
– Artaxoa, harresia urbanizatzea	569.750,23 €
– Fitero, klaustroa	24.106,64 €
– Orreagako aterpetxea, eraispenak	516.090,88 €

– Andelos, finkatze-lanak	338.749,94 €
– San Nikolas, fatxadak. II. eta III. faseak.	123.108,54 €

– Edozein pertsona fisiko edo juridikorengandik, publikoa nahiz pribatua izan –Administrazioa alde batera utzita–, eratorritako baliabide guztiak, fundazioak kudeatu dituenak, eta baliabideen zenbateko osoarekiko portzentajea.

Nafarroako Kutxa 41.724,22 € % 1,17

– Entitate garrantzitsuenak eta ekarpen esanguratsuenak: Nafarroako Kutxa

– Departamentutik kanpoko taldeekin kontratatuturiko obrak:

- Arellanon museoa sortu eta aztarnategiari balioa ematea
- Uxue, 5. fasea
- Artaxoa, 4. fasea; omenaldi-dorrea; harresia urbanizatzea
- Fitero, klaustroa
- Orreagako aterpetxea, eraispenak
- Andelos, finkatze-lanak

2.- 2009ari dagokionez:

– Nafarroako aurrekontu orokorretan fundazioari zuzenean esleitutako zenbatekoa: 4.010.00 €

– Fundazioak kudeatutako zenbatekoak, esku hartu duen lanetako bakoitza xehakatuta:

(2009-12-10ean ordainduta dagoenari doitutako kopuruak)

– Uxue, 6. fasea	597.756,57 €
– Artaxoako San Saturnino eliza, 4. fasea	302.834,43 €
– Artaxoa, harresia urbanizatzea	220.339,23 €
– Artaxoa, omenaldi-dorrea	306.921,17 €

– Fitero: klaustroaren 1. fasea	496.390,73 €
– Orreagako aterpetxea, eraispenak (amaiera)	417.993,60 €
– Orreagako aterpetxea: egitura	1.346.997,97 €
– San Nikolaseko fatxadak, IV. fasea	104.076,37 €
– Corellako San Miguel	568.044,09 €
– Iruñeko ziadadela	611.511,35 €

– Edozein pertsona fisiko edo juridikorengandik, publikoa nahiz pribatua izan –Administrazioa alde batera utzita–, eratorritako baliabide guztiak, fundazioak kudeatu dituenak, eta baliabideen zenbateko osoarekiko portzentajea.

Nafarroako Kutxa 13.484,60 € %0,27

– Entitate garrantzitsuenak eta ekarpen esanguratsuenak: Nafarroako Kutxa

– Departamentutik kanpoko taldeekin kontratatuturiko obrak:

- Uxue, 6. fasea
 - Artaxoa, 4. fasea; harresia urbanizatzea; omenaldi-dorra
 - Fitero, klaustroa
 - Orreagako aterpetxea: eraispenak eta egitura
- 3.- Patronatuaren osaketa aldaketarik izan al du azken bi urteotan?

Ez.

4.- Nafarroako Gobernuak esaterik ba al dauka haren helburu, egitura eta funtzionamenduari eragiten dion aldaketarik izanen den epe laburrean?

Ez.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 14. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko otsailaren 3an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Lekunberri-Albiasu saihebidet berriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Lekunberri-Albiasu saihebidet berriari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 11ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Lekunberri-Albiasu saihebidetari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Saihebidet berriari gertatu den afekzioa hauxe izan da: Azin ibaia bideratzeko balio duen lubeta 30 bat metro mugitzea; haren gainean plataforma eta errepede berriaren zoruak daude bermatuta.

2.- Afekzio hori eragin duten arrazoiak lurrazpi-ko iturburu batekin lotuta daude, hain zuzen ere une honetara arte ezagutu ez dena eta mendi magaletik ibaialdara doana. Izan ere, iturburu horretako urak betelanetarako material guztia blaitu du eta haren pisua asko handitu da; horrenbestez, nabarmen handitu da, baita ere, lubeta alde-rako bulkada, hura mugiarazteraino.

3.- Honako lanak egin dira: iturburuak errepede-ana eta ibaia bideratzeko lubetan eragindako kalteak konpondu eta atzemandako iturburu berriaren urak bideratzeko behar diren lanak gauzatu.

Honakoak dira aurreko lan horiek egiteko hartu diren neurri zuzentzaileak:

- Lubeta berregitea.
- Urak kaltetutako betegarriak saneatu eta ordeztzea.
- Betegarrietan zeharkako drainadurak jartzea, Azin ibairantz.
- Luzerako drainadurak eta errepedeko plataformak mendi mazelarekin duen ukipen-eremuko alboko hodi biltzailea sakontzea eta hodi biltzailea Azin ibairaino bideratzea.

- Ukitutako eremuan zoru berria, seinaleak eta balizak jartzea.

4.- Gure ustez sorturiko kalteak ezin zaizkio kontratistari egotzi, exekuzio txarra edo ezkutuko akatsa egoteagatik, zeren eta afekzioen arrazoia (iturburuko ura) ez baita haren ardurapekoa eta eraikuntzaren fasean ez baitzen gerta zitekeenaren zantzurik.

Kalkulatu da konponketak 56.230,08 euroko kostua izanen duela (BEZa barne).

5.- Konponketaren kostua obra nagusiaren kontusail berari kargatuko zaio.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko abenduaren 28an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, ikastetxe publikoetan erlijio-ikurrak egoteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Ikastetxe publikoetan erlijio-ikurrak egoteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 18ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek galdera egin du

eta idatzizko erantzuna eskatu, Nafarroako ikastetxe publikoetan erlijio-ikurrak egoteari buruz (PES-00327). Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentuan ez dago inolako dokumentu edo erregistrorik beren ikasgeletan erlijio-ikurrak dituzten Nafarroako ikastetxe publikoetara buruz. Halaber, ez dago jasota gai horrek inolako arazorik sortu duenik inongo ikastetxetan. Bestalde, jo daiteke gai hau haien autonomiaren esparruari dagokiola.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betez.

Iruñean, 2010eko urtarrilean

Hezkuntza kontseilaria: Alberto Catalán Higuerras

Galdera, Nafarroako errepideetan gatza botatzearen ondorio kaltegarriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroako errepideetan gatza botatzearen ondorio kaltegarriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroakok errepideetan izotza desegiteko botatzen den gatzari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Neguan errepideak ibiltzeko moduan egon daitezen gatza edo beste edozein motatako urtzai-leak erabiltzeak ingurumenean eragin batzuk badauzka, kontrolatu beharrekoak. Kudeaketa oker batek eragin negatiboak izan litzake batez ere landareetan, nabarmenago gatz gehien kontzentratzen den tokietan (ezpondak eta siloetatik hurbil dauden tokiak) eta neurri txikiagoan akuiferoetan. Halaber, litekeena da faunan ere kalteak eragitea, txikiak badira ere; izan ere, zenbaitetan, errepideetan barreiatutako gatz aleak jatera joaten diren animaliak harrapatzen dituzte autoek. Hori, bereziki, hegaztiekin gertatzen da.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentu honek neguan bideen egoera hobetzeko erabiltzen duen teknika honek, elurra kentzeko makinekin eta urtzai-leak (kloruro sodikoko gatza) aplikatuz, herrialde garatuetan gehien erabiltzen dena da, zeren eta jotzen baita neguan bideak erabilgarri mantentzeko lanek onurak ekartzen dituztela, esate baterako, istripuak saihestea, arintasun handiagoa lortzea komunikabideetan eta ibiltzeko zailtasunen ondoriozko galera ekonomikoak eta industria-jarduerako galerak saihestea. Onura horiek guztiek balizko kontraindikazioak gainditzen dituzte.

2.- Gai honi buruzko artikulua eta dokumentazio ugari dago, azkenean gogoeta batera garamatza-tenak, alegia aukerarik onena dela teknika horretaz erantzukizunez baliatzea, ahal den urtzaile kopuru txikiena aplikatuz baina eraginkortasunik galdu gabe. Horretarako, bitarteko egokiak aplikatu behar dira, eta arloari buruzko prestakuntza duten langileekin egin behar da. Halaber, gatza ez da alferrik bota behar, edo asfaltatu gabeko tokietan, ezpondetan edota errepideetako erdibitzaileetan.

Gatzuna eta beste urtzaile batzuk erabiltzeko aukera ere balegoke, baina kloruro sodikoa erabiltzeak funtsezko abantaila bat du beste urtzaile batzuen aldean, ekonomikoa, hamar aldiz edo merkeagoa baita beste konposatu kimiko batzuk baino. Eraginkorra da, kontzentrazioaren arabera, zero azpitik hamabost gradu zentigradu daudenean ere –gure lurraldean nekez harrapatzen dira horrelakoak–, aplikatzen eta lortzen erraza da eta ingurumenean dauzkan ondorioak, batzuetan, beste urtzaile batzuenak baino txikiagoak ere badira.

Gatzunari dagokionez, adierazi beharra dauka aplikatzen zailagoa dela, oso ere eraginkorra dela aplikatzeko eremuari dagokionez eta produktua toki egokian lortzen duen kontzentrazioari dagokionez, eta ingurumenaren aldetik egokiagoa dela, askoz ere gatz gutxiago erabiltzeko delako. Alabaina, beste alde batetik, eragozpen bat dauka: ezin da erabili behin izoztu eta gero eta erraz garbitzen da, bereziki elurra kentzen denean.

Beste urtzaile batzuei dagokionez –kloruro karbonikoa, urea, azetatoak, kaltzio karbonatua, kaltzio manganesoa eta abar–, esan beharra dago kostu handiagoa dutela, tenperatura baxuetan eraginkortasun maila desberdinak dituztela eta ingurumenerako ondorio are okerragoak ere izan ditzaketela; urearen kasuan, esate baterako. Praktikan, urtzaile horiek aireportuetako pistetan baizik ez dira erabiltzen.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 11n

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntza Hobetzeko Planaren esparruan azterlan bat egite aldera kanpoko enpresa bat kontratatu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du Oinarrizko Osasun Laguntza Hobetzeko Planaren esparruan azterlan bat egite aldera kanpoko enpresa bat kontratatu izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 18ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Asun Fernández de Garaialde andreak galdera egin du Osasun Departamentuak enpresa batekin oinarrizko osasun laguntzaren arloko premiei buruzko azterlan bat kontratatzeari buruz (PES-324/09). Horri buruz, esan behar dugu Oinarrizko Osasun Laguntza Hobetzeko Planeko Batzordea ez dela inkestak egiten ari; izan ere, kanpoko enpresa batekin kontratua egin du azterlan hori egin dezan.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 13an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Irudi bidezko Médicis diagnosi zentroarekiko hitzarmenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du Irudi bidezko Médicis diagnosi zentroarekiko hitzarmenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 18ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

egin du jakiteko ea “Médicis Centro de Diagnóstico por la Imagen” enpresarekin beste hitzarmen bat negoziatzen ari ote den (PES-325/09).

Bada, bai, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Prestazio eta Itun Zerbitzua beste kontratu bat ari da negoziatzen “Médicis Centro de Diagnóstico por Imagen” enpresarekin.

Kontratuaren termino ekonomikoak negoziatzen ari gara, eta oraingoz ezin ditugu eskuratu. Zerbitzua emateko terminoak ere negoziatzen ari gara, zenbait hobekuntza egiteari begira.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 13an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Asun Fernández de Garaialde andreak galdera

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz aurkeztuko duen Klimaren aldeko Ekintza Planaren aurrerapena.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz aurkeztuko duen Klimaren aldeko Ekintza Planaren aurrerapena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz aurkeztuko duen Klimaren aldeko Ekintza Planaren aurrerapena (PES-339). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Klima Aldaketaren aurka Jarduteko Estrategia eta Plana prestatzea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak koordinatutako prozesu bat da, eta hartan Nafarroako Gobernuko zenbait departamentu daude inplikaturik. Aspaldi samarretik ari dira horretan lanean.

Hainbat sektoretako negutegi efektuko gasen emisioak zehazteko lanek, eta, bestalde, gure esparruan lurraren erabilera dela-eta sortzen diren CO₂aren mugiarazteak (finkatze mekanismoak)

aztertze nahiek informazio iturriak identifikatzeko ahalegin handia eskatu dute, bai eta informazio hori kontrastatzeko, lantzeko eta analizatzeko ahalegin handia ere, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru-konbentzioak (UNFCCC dira haren ingelesezko siglak) kide diren estatuetarako ezarritako metodologiari jarraituz.

Ikuspuntu tekniko eta ekonomiko batetik bidegarriak diren teknikak identifikatzea, epe ertain eta luzean bete beharreko helburuak kontuan izanda, lan handia izan da abagune ekonomiko zail honetan, ildo egokirik aurrera egiteko desioa eta helburuak betetzeko ezarri beharreko bitartekoak uztartzeari dagokionez.

Bestalde, estrategia hori prestatzen parte hartzeko prozesuaren bultzadak berarekin ekarri du lau saio antolatu eta bultzatzea, horietako bakoitza bere orientazio eta gaiarekin, barneko –Nafarroako Gobernuko– eta kanpoko parte-hartzea bultzatze aldera. Prozesu hori 2009ko otsailean eta azaroan garatu da.

Informazioa bildu eta aztertze alderdiak eta parte hartze saioak ere bukatuta, oso aurreratu dago aipatutako estrategia eta ekintza plana osatuko duen dokumentazioaren idazketa. Izan ere aurreikusita dago aurtengo lehen seihilekoan bukatzea.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko otsailaren 13an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Erronkari jatorrizko deituran kanpoko ardien esnea erabil ez dadin Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Erronkari jatorrizko deituran kanpoko ardien esnea erabil ez dadin Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Erronkariko jatorrizko deituraz kanpoko ardien esnea erabil ez dadin Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruz (PES-340). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ohiko kontrol eta ikuskapen neurriak hartuko ditu egiaztatzeko Erronkariko jatorrizko deituran gazta egiteko erabiltzen den esnea horretarako baimendutako arrazatako ardietatik heldu dela.

Kontrolen sistema hori Elikagaien Kateko Kontrolari buruzko Plan Nazionalaren barruan integraturik dago, eta horren barruan, kalitate bereziaren kontroleko programaren barruan jasota dago.

Argitu beharra dago gaur egun Erronkariko jatorrizko deituran gazta egiteko baimendutako arrazak Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioak emaniko Babespen Nazional Iragankorrean jasota daudenak direla, hain zuzen ere Industriaren eta Elikagaien Merkatuaren Zuzendaritza Nagusiaren 2009ko otsailaren 16ko Ebazpenaren bidez onetsitakoak. Arraza horiek, Erronkariko Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arauemaileak onetsitako baldintzen orri berrian ezarritakoaren arabera, honakoak dira: rasa, latxa, assaf eta lacaune arrazak, bai eta haien arteko gurutzatzeak ere.

Babespen Nazional Iragankorra kentzen ez den bitartean edo Europako Batzordeak Erronkariko Jatorrizko Deituraren baldintzen orriak aldatzeko eskabidea ebazten ez duen bitartean, horiexek dira, horiexek bakarrik, Erronkariko Jatorrizko Deitura duen gazta egiteko erabil daitezkeen ardiarrazak.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduen 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 12an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, erakunde publikoetan erlijio-ikurrak egoteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du erakunde publikoetan erlijio-ikurrak egoteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentu-

ko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari loseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du erakunde publikoetako gune komunetan, eta zehazki Justizia Administrazioarenetan, erlijio-ikurrak egoteari buruz (PES-338). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Justizia Administrazioaren esparruan, bestak beste Auzitegi Probintzian eta epaitegietan, ez dago erlijio-ikurrak eraikin judizialetako gune komunetan, nik dakidala.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 13an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Osasun kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako loseba Eceolaza Latorre jaunak, galdera egin du erakunde publikoetan erlijio-ikurrak egoteari buruz (PES-338/09). Horri erantzuteko jakitera eman behar dugu erlijio-ikurrak daudela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun zentroetako kaperetan.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 13an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, 2009an onetsitako enplegu-erregulazioko espedienteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du 2009an onetsitako enplegu-erregulazioko espedienteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ion Erro Armendarizek informazioa eskatu du 2009an onetsitako enplegu-erregulazioko espedienteei buruz (PES-343/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Honekin batera, Nafarroako Gobernuak 2009an onetsitako enplegu-erregulazioko espedienteen zerrenda igortzen dizut.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 12an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipatutako espedienteen zerrendak foru parlamentarien eskura daude Agoran).

